

	OÑATIKO UDALA	
	Erregistro Data	
2017 URT 24		
SARBERRA	IRTEPERA	
193		

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Zorionak Gernikako Haritzari

Biharko egunez beteko dira 100 urte, orain gauden Osoko Bilkuren areto honetan bertan , herriko plaza eta frontoiaren artean zuhaitz bat landatzeko erabakia hartu zela. Gernikako arbolaren ahaide zuzena den haritza, alegia.

1917ko Otsailaren 2an egin zen landaketa. Landare txiki bat sartu zen tokian zuhaitz edo arbola eder bat sortuko zen gerora; 100 urte beteko dituen hurrengo astean.

Gernikako lurlean jaiotako landare hark gustura hartu zuen Oñatiko lurra. Esan beharrik ez dago Gernikako arbolak Euskal Herriko eskubide eta askatasunei dagokienean, berebiziko garrantzia duela. Egun ezagutzen dugun abertzaletasuna sortu aurrekoa den ikurra, mendez mende, errege eta agintari ezberdinen ginetik, Euskal Herriaren berezko eskubideen berme izan dena.

Gernikako arbola bera ezezik, Gernika bera da ikurra. Hainbat ikurren ikurra. Gernika Euskal Herria da baina gerra era bada, zapalkuntza, duintasuna, giza eskubideak...Euskal Herrian eta mundu zabalean ikur unibertsala.

Eta zorioneko gu oñatiarrok, Euskal Herriko ikur nagusietako baten ahaide zuzena herriko plazan gure artean izateagatik; 100 urte betetzeko prest, osasuntsu eta indarrez.

Urtemugak horrela eskatzen duelako, dei egiten diogu Oñatiko herriari 2017ko Otsailaren 3an Udaletxeko Kontzejupera agertu eta ospakizunetan parte hartzera.

OÑATIKO UDALBATZAK 2017ko Urtarrilaren 26an.

